

Euskaltzaindiak bere *Azkue Bibliotekarako langile baten beharra du.*

Eskaera egitea

Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaera egin nahi baduzu, erabil ezazu horretarako dagoen datu-orria. Bete ondoren, bidal ezazu azkuebib@euskaltzaindia.net helbidera edo Euskaltzaindiaren bulegoren batean postaz edo eskuz aurkeztu. Uztailaren 30etik abuztuaren 24ra arte postaz bidali beharko da.

Ondoko azalpenak aldeztatik arretaz irakurtzea biziki gomendatzen dizugu. Epea **abuztuaren 31** artekoa da, eguerdiko 12ak arte.

Langile baten beharraren jatorria

Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekako langile batek aurretiazko zatikako jubilazioa dela eta, Euskaltzaindiak langile bat kontratatu nahi du, horretarako errelebo - kontratua erabiliz.

Funtzioak

- 1.- Aldizkarien kontrola
- 2.- Dokumentazio zerbitzuaren ardura: euskaltzainei buruzko datu-basea hornitzea eta kudeatzea
- 3.- Erabiltzaileekiko harrera zerbitzua: informazioa, mailegua, kopia eta abar
- 4.- Zuzendariak ildo horietan edo antzekoetan esleitzen ahal dizkionak

Kontratazio-baldintzak

Kontratuaren izaera: lan-kontratua. Errelebo-kontratua, %75eko lanaldiarekin.

Lan baldintzak: Bizkaiko Bulego eta Langeletako Hitzarmenean ezarritakoak. Katgoria profesionala: Administrari laguntzailea.

Kontratuaren hasiera: 2012ko urriaren 1ean.

Lan egiteko tokia: Euskaltzaindiak Bilbon duen egoitzan, Plaza Barriaren 15. zenbakian.

Langileak bete beharreko baldintzak

- Administrari laguntzaileari dagozkion ikasketak izango ditu, gutxienez.
- Euskaraz ongi egingo du, ahoz eta idatziz; EGA edo baliokidea izango du, gutxienez.
- Oinarritzko informatika-tresnen ezagutza erabiltzaile moduan

Merezimendu gisa hartuko dira kontuan honako hauek:

- euskal kultura munduarekiko ezagutza
- lan-esperientzia antzeko biblioteka edota dokumentazio-zentruetan
- zenbait informatika-tresnen ezagutza : GIMP, Acrobat Pro, Absys, OdiloA3W.
- dokumentazioaren eta artxiboen erabileraren inguruan egindako ikasketak, lanak eta ikerlanak
- hizkuntzak: menderatzen ez duten albo-hizkuntza (gaztelania edo frantsesa); ingelesa.

Aukeratzeko prozedura

| Egutegia | |
|---|---|
| Zer | Noiz |
| Izangaiek datu-orria osatu eta Euskaltzaindian aurkeztu | 2012ko abuztuaren 31ko eguerdiko 12ak baino lehen |
| Idatzizko ariketaren ordua izangaiei jakinarazi | 2012ko irailaren 5ean |
| Izangaiek idatzizkoa egin/Epaimahaiak ariketa idatzia egoki egin duten izangaiei elkarriketa egin | 2012ko irailaren 10 eta 20 bitartean |
| Euskaltzaindiak emaitzak jakinarazi | 2012ko irailaren 26an |
| Kontratazioa egin | 2012ko urriaren 1ean, printzipioz |

Aukeraketa

Prozedurak hiru atal izango ditu:

- merezimenduak baloratzea (gehienez bost puntu);
- ariketa idatzia (gehienez hamar puntu) ; atal honen barruan froga praktikoa bat egingo da, epaimahaiak hala iritzi gero
- elkarriketa egitea (gehienez hamar puntu) ;
- epaimahaiak hala iritzi gero, euskal kulturari buruzko froga berezi bat ezarri ahal izango du prozeduraren lehen eta bigarren atalen artean ; froga horrek test izaera izango du eta emaitza izango da GAI / EZ GAI.

Aukeraketa-prozedura hau burutzeko lau kidez osatutako epaimahaia izango da. Horietako batek idazkaritza lanean jardungo du. Bere erabakiak hartzeko beharrezkoa duen gehigarriko informazioa eskatu ahal izango die izangaiei. Bere erabakiak behin betikoak dira. Eskaeretan aurkeztutako datuetan oinarriturik bere ustez egokiak izan daitezkeen izangaiei bakarrik deituko die euskal kulturari buruzko froga edota idatzizko ariketa egitera; era berean elkarriketara nor deitu eskaeretan eta ariketa horren emaitzetan oinarriturik erabakiko du. Orobat, epaimahaiak frogen epeak edo agiriak jasotzek epeak luzatu ahal izango ditu, horretarako beharrik balego. Halaber, informatikan edo bibliotekonomian adituak diren beste batzuen iritziak eskatu ahal izango du, hala iritzi gero.

Prestakuntza

- Aukeratutako lagunak berariazko prestakuntza jasoko du.

Argibideak

Argibide gehiago behar duenak galdera honako helbide honetara bidal dezala: azkuebib@euskaltzaindia.net

Eskaera egiteko datu-orria

Kopiatu eskaera-orria zure ordenagailura eta bete. Betetakoan bidal ezazu posta elektronikoz aurreko pasartean agertzen den helbide elektronikora. Euskaltzaindiak duen edozein bulegotan ere aurkez daiteke eskaera, paperean, eskuz edo postaz (uztailaren 30etik abuztuaren 24ra arte postaz bidali beharko da).

Bulego-helbideak honako helbide honetan aurkituko dituzu:

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&Itemid=395&catid=78&id=832&lang=eu&view=article

Ohartu, dena den, egoitzako ordutegia honako hau da: astelehenetik ostiralera goizeko 8:00etatik eguerdiko 15:00etara. Euskaltzaindiak zure eskaera jaso duela adierazten duen froga-agiria emango dizu, eskaera aurkeztu duzun bide beretik.

Ez duzu oraingoz inolako agiririk aurkeztu beharrik. **Epaimahaiak idatzizko ariketara deitzen bazaitu, ordea, eraman itzazu zurekin eskabide-orrian aipatu dituzun agiri guztiak** (ikas-tituluak, euskara-agiria, arlo jakin batean izandako esperientziaren froga-agiria...).

Eskaera aurkezten duenak deialdia bera kudeatzeko bere datuak fitxategi batean jasoko direla onartzen du. Fitxategi horri dagokionean jakinarazten dizugu sarbide-, aurkaritza-, zuzenketa- eta ezeztapen-eskubideak Euskaltzaindian bertan gauzatu ditzakezula.